

Filma ala telesaila?

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Sekuentzia honetan ariketa hauek egingo dituzu:

- Bideo bat ikusi eta galderei erantzun.
- Euskalkian esandako hitz batzuen esanahia aurkitu.
- Testuan falta diren aditzak jarri.
- Bi elkarrizketa entzun eta esaldi batzuk nork esan dituen identifikatu.
- Taldean jarri eta zuen iritziak partekatu.



*Ikusi **bideoa** eta esan behean agertzen diren baieztapenak egia ala gezurra diren.*

Euskal Herrian oso gustuko ditugu telesailak, Mirenen ustez.

Egia Gezurra

Mirenek etxean kontsumitzen du zinema.

Egia Gezurra

Zinema-aretoetako kontsumoa jaitsi egin da.

Egia Gezurra

Gero eta modu indibidualagoan kontsumitzen dugu.

Egia Gezurra

Mirenek denbora gehiago izan nahi luke telesailak ikusteko.

Egia Gezurra

Batzuk engantxatuta daude, eta egun osoa ematen dute telesailak ikusten.

Egia Gezurra

Zineman hobeto kontatzen dira istorioak telesailetan baino.

Egia Gezurra

Merkatua saturatuta dago serie amerikar eta europarrekin.

Egia Gezurra

Euskarazko eskaintza handia dago, baina ez dugu ikusten.

Egia Gezurra

Ikusi duzunez, Mirenek oso azkar hitz egiten du, eta, gainera, zenbait gauza bizkaieraz esan ditu. Ea lotzen dituzun esandako hitz hauek bere esanahiarekin:

Esandakoa

Esanahia

Be

Ez dago

Hamen

Edukitzea

Egixa

Denboral

dika

Dauzela

Daudela

Neuke

Nuke

Gehixau

Heldu

Eukittea

Hemen

Igual

Gehiago

Dako

Egia

Bihar da

Ere

Tenporadaka

Agian

Ez dau

Dauka

Naguxi

Behar da

Orain elkarrizketa irakurtzeko aukera izango duzu, baina aditzak kenduta. Horiek zeuk jarri behar dituzu. Hutsune askotan aukera bat baino gehiago dira posible, baina guk Mirenek esandakoa jarri dugu bakarrik

Astean zehar neka-neka eginda iritsi ohi _____ etxera. Ordu-piloa lanean pasatu eta deskantsatzeko momentua nahi izaten _____. Une horietarako, liburua hartzeko, telebista pizteko, filma bat ikusteko edo telesailen bati heltzeko joera _____. Oso atsegin dugu besteen kontakizunetan sartzea, gurea alde batera uzteko, une batean bada ere. Filmek eta telesailak xede hori _____: historia edo istorioak kontatzea. Kontakizunaren forma aldatzen _____, kontatzeko era. Baina zer dugu gustukoena gaur egun? Film bat ikustea edo telesailetan murgiltzea?

Miren Manias oñatiarra EHUko ikerlaria _____, eta Euskarazko fikziozko film luzeen tesia bukatu berri _____. Berarekin bildu _____ Leioako Unibertsitateko lorategietan.

“Gure artean zinema gustatu egiten dela uste dut. Ez filmak ikustea soilik, zinemara joatea asko gustatzen _____. Ikus-entzunezkoak kontsumitzeko ohitura handia _____ Euskal Herrian”, agertu digu Mirenek. Bere ustez, kontsumitzeko moduak aldatu egin _____ eta, azken urteotan, etxean gehiago kontsumitzen dela zehaztu _____.

2014ko datuen arabera, azken urteetan zinemaren sektoreak beherakada handia izan _____ ere, 2013az geroztik % 14 igo da, eta poliki-poliki zinema-aretoetara joateko ohitura indartzen ari _____. “Ni, adibidez, filmak zineman kontsumitzeko _____. Egia da, telesailen agerpenarekin edo, burrunba batean sartu garela, oso telesail onak _____ lako. Horrek, agian, zinemaren kontsumoa murriztu egin, baina murriztu dena zinema aretoetako kontsumoa da; nik uste dut etxean oraindik ere film asko ikusten direla”, esan digu ikerlari oñatiarrak.

Teknologiaren garapenak, lehen pentsaezina zena lortu _____: filmak zinema-aretoetan ez ezik, etxeko edozein lekutan ere ikusi ahal izatea. Forma berriak agertu dira filmak ikusteko eta urtetik urtera gailu berriak horretarako: telebista, ordenagailua, tableta, mugikorra... Mirenek esan _____ gailu berriek ikus _____ entzunezkoen kontsumoa indibidualizatu egin dutela: “Kontsumoa gero eta indibidualagoa _____, nahiz eta etxean kontsumitu; uste dut etxean ere modu indibidualean kontsumitzen dela”.

Lost, The Walking Dead, Juego de tronos, Hannibal, Dexter, Black Mirror, House, The Bones, Castle, The Mentalist, CSI, Prison Break, Breaking Bad, Anatomía de Grey, Sexo en Nueva York, The Simpson, Sopranotarrak, The Wire... hainbat eta hainbat telesailak izan _____ arrakasta gure artean. Ericsson ConsumerLab TV & Mediak egindako ikerketaren arabera, 2014. urtean onlineko serieak eta streaming emisioek ia telebistak adina ikusle izan _____. Azken 5 urteetan izugarri handitu da telesailak ikusteko ohitura. Teknologiaren demokratizazioak Internet bidez hainbat telesail ikusteko aukera eman du, eta, filmak ikusi beharrean, telesail gehiago kontsumitzen dela _____. Baina zer dute desberdin?

Mirenek zera esan digu: “Filmetan kontatzen den istorioak denbora aldetik muga handiagoa du. Kontakizuna denbora zehatz batean kontatu behar da, eta telesailetan, berriz, hainbat segida egin ditzakegu, atalak, denboraldiak... Horrek istorioa gehiago lantzeko aukera ematen _____”.

Denbora falta duelako, Mirenek telesailak gutxiago ikusten dituela esan digu: “Telesailak kontsumitzeko denbora gehiago izatea gustatuko litzaidake. Azkenean, telesailen kontsumoa filmen moduan egiten da: telesail bat erosi edo deskargatu, eta filmaren moduan ikusi nahi izaten _____; hau da, bi ordu jarraian, agian hiru edo egun osoa. Badago egun osoa telesailak ikusten igarotzen duen jendea ere”.

EUSKARAZKO FIKZIOA

“Gurean ere, dirudienez, Estatu Batuetako telesailak eta filmak ikusten _____ gehien. Egia da merkatuaren legeari erantzuten _____ horrek. Banaketa-etxeek agintzen dute sektore honetan eta kanpoko produktu asko ekartzen dituzte; batez ere Estatu Batuetakoak. Gure merkatua horrelako produktuz gainezka dago, baina ez gurean bakarrik; mundu-mailako merkatuak horrela funtzionatzen du. Europatik datozen filmentzat ez _____ lekurik”.

Dena den, Mirenek argi du telebistak ere zerikusi handia duela honetan: “Telebistan ikusten_____netik ere badator joera hau. Euskarazko eskaintza, fikzioari dagokionez, oso txikia da. Horrek ere nolabait gure kontsumo- ohituretan eragin nabarmena_____ . Txikitatik euskarazko fikziozko ikus-entzunezkoak ikusten ohituta egongo bagina, ziurrenik ez genuke hain erraz egingo kanpokoan aldeko apustua, baina zoritxarrez ez dugu beste aukerarik”.

Nork esan du? Entzun bi pertsonari egindako elkarrizketa, eta esan beheko esaldi bakoitza nork esan duen.

| | Ariane | Amaia |
|--|--------------------------|--------------------------|
| Zenbaitetan familiarekin ikusten ditu filmak. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Pelikulak efektu bereziak baditu, zinean ikusten du. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Normalean, eguraldi txarra egiten duenean joaten da zinera. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Scandal izeneko serie bat ikusten du. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Serie bat jarraitzen du egunero. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Ikusi zuen azken filma erromantikoa zen. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Telesailak eta filmak, denetik ikusten du, denboraren arabera. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Telesailak gutxitan ikusten ditu. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |

Eta zuk?

Jarri taldean eta komentatu puntu hauek?

- Ba daukazue filmak ikusteko ohiturarik?
- Non eta nola ikusten dituzue?
- Zer nahiago: filmak ala telesailak? Nolakoak?
- Zuen ikusteko ohiturak aldatu egin dira?
- Zein da ikusi duzun azken filma?
- Telesailen batekin engantxatuta egon zara?



ERANTZUNAK

BIDEOAREN ERANTZUNAK

Euskal Herrian oso gustuko ditugu telesailak, Mirenen ustez.

✓ Gezurra

Mirenek etxean kontsumitzen du zinema.

✓ Gezurra

Zinema-aretoetako kontsumoa jaitsi egin da.

✓ Egia

Gero eta modu indibidualagoan kontsumitzen dugu.

✓ Egia

Mirenek denbora gehiago izan nahi luke telesailak ikusteko.

✓ Egia

Batzuk engantxatuta daude, eta egun osoa ematen dute telesailak ikusten.

✓ Egia

Zineman hobeto kontatzen dira istorioak telesailetan baino.

✓ Gezurra

Merkatua saturatuta dago serie amerikar eta europarrekin.

✓ Gezurra

Euskarazko eskaintza handia dago, baina ez dugu ikusten.

✓ Gezurra

HITZAK PAREKATU

| <u>Esandakoa</u> | <u>Esanahia</u> |
|------------------|-----------------|
| Be | Ere |
| Hamen | Hemen |
| Egixa | Egia |
| Dauzela | Daudela |
| Neuke | Nuke |
| Gehixau | Gehiago |
| Eukittea | Edukitzea |
| Igual | Agian |
| Dako | Dauka |
| Bihar da | Behar da |
| Tenporadaka | Denboraldika |
| Ez dau | Ez dago |
| Naguxi | Heldu |

NORK ESAN DU?

| | Ariane | Amaia |
|---|--------|-------|
| Zenbaitetan familiarekin ikusten ditu filmak. | ✗ | ✓ |
| Pelikulak efektu bereziak baditu, zinean ikusten du. | ✓ | ✗ |
| Normalean, eguraldi txarra egiten duenean joaten da zinera. | ✗ | ✓ |
| Scandal izeneko serie bat ikusten du. | ✗ | ✓ |
| Serie bat jarraitzen du egunero. | ✓ | ✗ |
| Ikusi zuen azken filma erromantikoa zen. | ✗ | ✓ |
| Telesailak eta filmak, denetik ikusten du, denboraren arabera | ✓ | ✗ |
| Telesailak gutxitan ikusten ditu. | ✗ | ✓ |

TESTUAREN HUTSUNEAK BETE

FILMAK ALA TELESAILAK, ZER NAHIAGO DUGU?

Astean zehar neka-neka eginda iritsi ohi (gara) etxera. Ordu-piloa lanean pasatu eta deskantsatzeko momentua nahi izaten (dugu) . Une horietarako, liburua hartzeko, telebista pizteko, filma bat ikusteko edo telesailen bati heltzeko joera (dugu) . Oso atsegin dugu besteen kontakizunetan sartzea, gurea alde batera uzteko, une batean bada ere. Filmek eta telesailak xede hori (dute) : historia edo istorioak kontatzea. Kontakizunaren forma aldatzen (da) , kontatzeko era. Baina zer dugu gustukoena gaur egun? Film bat ikustea edo telesailetan murgiltzea?

Miren Manias oñatiarra EHUKo ikerlaria (da) , eta Euskarazko fikziozko film luzeen tesia bukatu berri (du) . Berarekin bildu (gara) Leioako Unibertsitateko lorategietan.

“Gure artean zinema gustatu egiten dela uste dut. Ez filmak ikustea soilik, zinemara joatea asko gustatzen (zaigu) . Ikus- entzunezkoak kontsumitzeko ohitura handia (dago) Euskal Herrian”, agertu digu Mirenek. Bere ustez, kontsumitzeko moduak aldatu egin (dira) eta, azken urteotan, etxean gehiago kontsumitzen dela zehaztu (digu) .

2014ko datuen arabera, azken urteetan zinemaren sektoreak beherakada handia izan (badu) ere, 2013az geroztik % 14 igo da, eta poliki-poliki zinema-aretoetara joateko ohitura indartzen ari (da) . “Ni, adibidez, filmak zineman kontsumitzekoa (naiz) . Egia da, telesailen agerpenarekin edo, burrunba batean sartu garela, oso telesail onak (daude) lako. Horrek, agian, zinemaren kontsumoa murriztu egin (du) , baina murriztu dena zinema aretoetako kontsumoa da; nik uste dut etxean oraindik ere film asko ikusten direla”, esan digu ikerlari oñatiarrak.

Teknologiaren garapenak, lehen pentsaezina zena lortu (du) : filmak zinema-aretoetan ez ezik, etxeko edozein lekutan ere ikusi ahal izatea. Forma berriak agertu dira filmak ikusteko eta urtetik urtera gailu berriak (ditugu) horretarako: telebista, ordenagailua, tableta, mugikorra... Mirenek esan (digu) gailu berriek ikus-entzunezkoen kontsumoa indibidualizatu egin dutela: “Kontsumoa gero eta indibidualagoa (da) , nahiz eta etxean kontsumitu; uste dut etxean ere modu indibidualean kontsumitzen dela”.

Lost, The Walking Dead, Juego de tronos, Hannibal, Dexter, Black Mirror, House, The Bones, Castle, The Mentalist, CSI, Prison Break, Breaking Bad, Anatomía de Grey, Sexo en Nueva York, The Simpson, Sopranotarrak, The Wire... hainbat eta hainbat telesailak izan (dute) arrakasta gure artean. Ericsson ConsumerLab TV & Mediak egindako ikerketaren arabera, 2014. urtean onlineko serieak eta streaming emisioek ia telebistak adina ikusle izan (dituzte) . Azken 5 urteetan izugarri handitu da telesailak ikusteko ohitura. Teknologiaren demokratizazioak Internet bidez hainbat telesail ikusteko aukera eman du, eta, filmak ikusi beharrean, telesail gehiago kontsumitzen dela (dirudi) . Baina zer dute desberdin?

Mirenek zera esan digu: “Filmetan kontatzen den istorioak denbora aldetik muga handiagoa du. Kontakizuna denbora zehatz batean kontatu behar da, eta telesailetan, berriz, hainbat segida egin ditzakegu, atalak, denboraldiak... Horrek istorioa gehiago lantzeko aukera ematen (du) ”.

Denbora falta duelako, Mirenek telesailak gutxiago ikusten dituela esan digu: “Telesailak kontsumitzeko denbora gehiago izatea gustatuko litzaidake. Azkenean, telesailen kontsumoa filmen moduan egiten da: telesail bat erosi edo deskargatu, eta filmaren moduan ikusi nahi izaten (dugu) ; hau da, bi ordu jarraian, agian hiru edo egun osoa. Badago egun osoa telesailak ikusten igarotzen duen jendea ere”.

EUSKARAZKO FIKZIOA

“Gurean ere, dirudenez, Estatu Batuetako telesailak eta filmak ikusten (dira) gehien. Egia da merkatuaren legeari erantzuten (diola) horrek. Banaketa-etxeek agintzen dute sektore honetan eta kanpoko produktu asko ekartzen dituzte; batez ere Estatu Batuetakoak. Gure merkatua horrelako produktuz gainezka dago, baina ez gurean bakarrik; mundu-mailako merkatuak horrela funtzionatzen du. Europatik datozen filmentzat ez (dago) lekurik”.

Dena den, Mirenek argi du telebistak ere zerikusi handia duela honetan: “Telebistan ikusten (dugu) netik ere badator joera hau. Euskarazko eskaintza, fikzioari dagokionez, oso txikia da. Horrek ere nolabait gure kontsumo-ohituretan eragin nabarmena (du) . Txikitatik euskarazko fikziozko ikus-entzunezkoak ikusten ohituta egongo bagina, ziurrenik ez genuke hain erraz egingo kanpoko aldeko apustua, baina zoritxarrez ez dugu beste aukerarik”.